

# Hizkera inklusiboaren gida



COCEMFE



PARLAMENTO DE NAVARRA  
NAFARROAKO PARLAMENTUA



COCEMFE  
Navarra

---

Desgaitasuna duten pertsonei buruz hizkera zuzena, begirunetsua eta adostua erabiltzeko eta sexismorik gabe komunikatzeko jarraibideak

---

# SARRERA: GIDA

**COCEMFE elkarteak, COCEMFE Navarra elkarteak eta Nafarroako Parlamentuak gida hau egin dute, desgaitasuna duten pertsoneri buruz hizkera zuzena, begirunetsua eta adostua erabiltzeko eta sexismorik gabeko hizkera erabiltzeko.**

COCEMFE (Desgaitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioa) desgaitasun fisikoa edo organikoa duten pertsonen mugimendu sozialaren ordezkaria da, eta gizarteko 1.600 entitate baino gehiago biltzen ditu. COCEMFE Navarra elkarteak, bestalde, lanean ari da desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta autonomia hobetzeko, bere zerbitzuen bitartez nahiz partaide dituen 17 entitateen ordezkariaren bitartez. Guztira 5.500 bazkide baino gehiago dituzte entitate horiek. Bi elkarte horietan dauden pertsonak desgaitasun fisikoa edota organikoa dute, baina ez da beti ulertzen zertan bereizten diren desgaitasun horiek:

**DESGAITASUN FISIKOAK** erreferentzia egiten dio mugimendu-funtzioak edo funtzio fisikoak urrituak edo galduak izateari, eta ondorioak sortzen ditu moldatzeko moduan edo jarduera jakin batzuk egiteko moduan, muga edo oztopo gogorak dituen gizarte honetan. Horregatik, desgaitasun fisikoa duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte mugitzean, objektuak manipulatzeko edota hizkuntza bezalako eremuetan.

**DESGAITASUN ORGANIKOA** da gorputzeko zenbait sistemak funtzionaltasun galera izatea, sortzetikoa nahiz hartua, eta zerikusia izaten du barne-organoekin edo prozesu fisiologikoekin. Ikusezintasunari, familian, gizartean eta lanean ulertua ez izateari eta Administrazioaren aitortpen ofizialik ezari beste arazo zehatz batzuk gehitzen zaizkie, egunerokoan traba handiak sortu eta bizi-kalitateari eragiten diotenak..

**ADIBIDEAK:** giltzurrunetako gaixotasunak, gibelakoak, bihotzekoak, fibrosi kistikoa (birikiak), Crohn-en gaixotasuna eta gaixotasun digestiboak; linfedema (linfa-sistema), hemofilia (odolaren koagulazioa), lupusa (sistema immunea); eta buruko mina, migraina, alzheimerra, parkinsona, loaren nahasmenak, fibromialgia edo neke kronikoaren sindromea (nerbio-sistema zentrala).

**N**AFARROAKO PARLAMENTUAN uste dugu hizkuntza ez dela neutra-  
la. Hitz askok esanahi desberdinak izan ditzakete, nola eta zer as-  
morekin erabiltzen diren. Hizkuntzaren bidez pertsonak gizarteratu  
edo baztertu egin ditzakegu, eboluzionatu egin dezakegu, ikuspegi  
eraldatzailea har dezakegu, eta geure balioak agertu. Hitz zaharkitu,  
zehaztugabe edo ezegokiak irudi sozial negatiboak iraunarazteko  
eta banakoak edo taldeak estigmatizatzeke erabil daitezke.

Berdintasun-politiken funtsezko atal bat da harremanetarako eta komunikaziorako arauak aldatzea, barneratzaileak izateko eta talde bat bera ere diskriminatzeke biderik ez emateko. Hizkuntzak, komunikazio-tresna gisa, pertsona guztiak berdintasunez ordezkatu behar ditu, eta berdinen gizartea sustatzen lagundu.

Horregatik uste dugu guztiz garrantzitsua dela hizkera zaintzea. Ildo horretan, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiek zer nolako terminologjaren bidez nahi duten gizartean agertu eta nola nahi duten izenda ditzaten hausnartzen da gida honetan. Gizartearen zati horri buruz errespetuz hitz egiteko jarraibideak ezarri nahi ditugu dokumentu honetan, estereotipoak pertzepzio positibo eta errealista bilaka daitezten. Jarraibide horiek pertsona, hedabide eta teknikari orori zuzenduta daude, desgaitasuna duten pertsonak aipatzerakoan sortzen zaizkien zalantzak argitzeke.

Gida honek, halaber, dokumentuak hizkera inklusiboa gehituz berrikusteko eta idazteko lan-tresna bat eskaintzen die Parlamentuko teknikari eta politikariei, diskriminatzen ez duen administrazio-hizkera erabiltzeko irtenbide praktikoa eta didaktikoekin, Parlamentuko eguneroko lanean azal daitezkeen edozein egoera ebatzi ahal izateko moduan.

**AINHOA AZNÁREZ IGARZA** Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria





# HIZKERA INKLUSIBOA:

1

## DESGAITASUNA DUEN PERTSONA...EZER BAINO LEHEN PERTSONAK GARA Sustituir “discapitado” o “ciego” por “persona con...”

“Ezer baino lehen pertsonak gara, eta ez dugu nahi etiketarik jar diezaguten. Desgaitasuna ez da bereizten gaituen ezaugarri bakarra, gure ezaugarrietako bat baizik”. Horregatik da garrantzitsua atzean pertsona hitza jartzea. “Desgaitasuna duen pertsona” da termino egokiena, eta ez “desgaitua”.

Pertsonak ez dira “desgaituak”, aitzitik, desgaitasunen bat dute. Egiazko aukera-berdintasuna galarazten duen ingurunea gehitzen zaio egoera horri, irisgarritasun unibertsalaren faltagatik, gizarteko sektore batzuen konpromiso ezagatik edo eskubideen urratze etengabeen ondorioz. Beraz, desgaitasuna ez da substantiboa, adjektiboa baino.

Ez da zuzena desgaitasuna duen norbaitengatik “itsua” edo “tetraplegikoa” dela esatea; “itsutasuna edo tetraplegia duen pertsona” dela esan behar da.

2

## EZ EZINDURIK, EZ MINUSBALIODUNIK, EZ ATZERATURIK...

### Termino ezegokiak dira, konnotazio negatiboak dituztenak

Ezindua, minusbalioduna, urritua, atzeratua, elbarria, mutilatua... Horrelakoak gutxiespen-hitzak dira eta desgaitasuna duten pertsonen duintasuna urratzen dute, balio txikia egozten diotelako pertsonari, edo batere ez, edo kutsu negatibo nabarmenarekin erabili ohi direlako.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK, ADOSTUTAKO TERMINOAK  
elkarte-mugimendu orokorrak termino hori adostu du, milioika lagun  
errealitatea adierazten duelako, alderdi humanoa indartzen duelako eta  
pertsona horien eskubide eta askatasunen defentsa bistarazten duelako.



# 3

## SAIHESTU BESTELAKO GAITASUNAK BEZALAKO EUFEMISMOAK

**Ez da komeni horrelako terminoak erabiltzea, nahasmendua sortzen dutelako**

Dibertsitate funtzionala, gaitasun desberdinak, bestelako gaitasunak eta horrelako terminoak errukizko eufemismoak dira, COCEMFERen iritziz nahasmendua eta segurtasun juridikorik eza eragiten dute, eta moteldu egiten dute eskubide eta askatasunen babesa, zeina oraindik ere beharrezkoa baita.

Guztiok desberdinak gara, dibertsitatea pertsona guztiei aplikatu ahal zaie. Beraz, horrelako termino ilun eta generikoak ez dira ongi ulertzen, ikusezin bihurtzen dute talde sozial hori eta beraren errealitatea ezkututzen dute. Gainera, desgaitasuna izatearen arazoa gutxiesten dute, maila berean kokatzen baitituzte desgaitasuna eta edonork jarduera batzuk edo besteak egiteko izan dezakeen trebetasuna.

INKLUSIBOA 	EZ INKLUSIBOA 
<p><b>Desgaitasuna duen pertsona</b></p> <hr/> <p><b>Desgaitasun fisikoa, desgaitasun organikoa, itsutasuna, epilepsia, tetraplegia... duen pertsona</b></p>	<p>Desgaitua, pertsona desgaitua, atzeratua, elbarria, subnormala, ezindua</p> <hr/> <p>Dibertsitate funtzionala, bestelako gaitasunak, gaitasun desberdinak</p> <hr/> <p>Itsua, epileptikoa, tetraplegikoa,</p>

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK, LEGEZKO TERMINOA termino hori dago jasota Nafarroako, Estatuko eta nazioarteko lege-esparruan, eta balio duen bakarra da, Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren arabera; Espainiako Parlamentuak berretsi egin du konbentzio hori. Gainera, IRISGARRITASUN UNIBERTSALARI BURUZKO EKAINAREN 14KO 12/2018 FORU LEGEAK termino hori erabiltzera behartzen ditu administrazio publikoak.

4

## EZ ERABILI DESKRIBAPEN NEGATIBO EDO SENTSAZIONALISTARIK

Saihestu “...-k jotakoa” edo “gurpil-aulkira lotua” bezalako espresioak

Baztertu egin behar ditugu pertsonen desgaitasunari buruzko deskribapen negatibo edo sentsazionalistak. Errukia eragiten dute, eta ez dugu horrelakorik nahi, herritar gisa dituzten eskubideen errespetauan oinarritutako onarpen soziala baino.

### INKLUSIBOA



**Fibrosi kistikoa du**

**Gurpil-aulkia erabiltzen du,  
gurpil-aulkian dabil**

### EZ INKLUSIBOA



“Fibrosiak jotakoa”, “fibrosiduna” “fibrosiaren biktima”, “fibrosiak erasana”

“Gurpil-aulkira lotua”, “gurpil-aulkira kondentatua”

5

## TALDE SOZIALA, GIZARTEAREN ZATIA...

“Desgaitasuna duten pertsonen” sinonimoak dira

“Desgaitasuna duen pertsona” terminoa behin eta berriz ez errepikatzeke, “talde soziala” esatea proposatzen dugu “sozial” hitza tartean delako. Izan ere, integrazio eta normalizazio soziala da helburu nagusia. Beste aukera batzuk: “pertsona taldea” edo “gizartearen zati hori”.





6

## EZ GARA SUPERGIZON ETA SUPERREMAKUMEAK

**Behar ditugun laguntzekin, helmuga berak lor ditzakegu**

Askotan, hedabideek edo pertsonak balentria modura aurkezten dituzte gure talde sozialaren lorpenak, baina normaltasuna da horrelako egoeretarako tratamendu egokia. Gure eskubideak bermatu eta behar ditugun laguntzak eskuratuz gero, desgaitasuna dugun pertsonak beste edozeinek adinako helmugak lor ditzakegu.

7

## GUZTIOK GARA NORMALAK

**Adi ibili konparazioak egiterakoan**

Desgaitasunik ez duten pertsonari buruz “normala” terminoa erabili ordez hobe da “desgaitasunik gabeko pertsonak” edo “gainerako biztanleak” direla esatea, konparazioa egin beharra badago.

### INKLUSIBOA



gastu gehiago dituzte...  
“gainerako biztanleak  
baino

### EZ INKLUSIBOA



gastu gehiago dituzte...  
“pertsona normalek  
baino”

## HIZKERA EZ SEXISTA:

Hizkera ez sexistaren erabilera sustatzen dugu berdintasunerantz aurrera egiteko. Horrek esan nahi du hizkuntzan eta irudietan berdintasunezko eta errespetuzko tratua eman behar zaiela emakumeei eta gizonei, hizkuntzak eskaintzen dituen baliabide guztiak erabiliz.



# Aldatu hitzak eta errealitatea aldatuko duzu

Hitz ezegokiek talde sozial bati  
buruzko irudi negatiboak  
eta aurreiritziak iraunaraz ditzakete

# Cambia las palabras, cambiarás la realidad

Palabras inapropiadas pueden servir  
para mantener imágenes negativas  
y prejuicios sobre un grupo social



PARLAMENTO DE NAVARRA  
NAFARROAKO PARLAMENTUA



COCEMFE

**PARLAMENTO DE NAVARRA/ NAFARROAKO PARLAMENTUA**

C/ Navas de Tolosa, 1 kalea/ 948 209 209

[registro@parlamentodenavarra.es](mailto:registro@parlamentodenavarra.es) / [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es)

**COCEMFE NAVARRA/ COCEMFE NAVARRA:** C/ Mendigorria, 12 kalea  
948 38 38 98/ [federacion@cocemfenavarra.es](mailto:federacion@cocemfenavarra.es) / [www.cocemfenavarra.es](http://www.cocemfenavarra.es)

**COCEMFE:** C/ Luis Cabrera, 63 kalea (Madrid, Madril) / 917 44 36 00  
[cocemfe@cocemfe.es](mailto:cocemfe@cocemfe.es) / [www.cocemfe.es](http://www.cocemfe.es)